



ZORIONAK

I. Gogo landerren zori ona, zeru-jaureña dabe-ta

(Amaya)

Bein gazte bat eldu yakon Yesu'ri, ta diñotso: «Irakasle: Zer onik negike, betiko bizitza iristeko? Josu'k esan eutson: Onaz zegaitik Niri itaun? Ona, bat bakafa da. Baña betiko bizitzara sartu nai ba-dozu, aginduak bete egizuz. Ak diñotsa: Zeintzuk, ba? Jesus'ek dirautsa: Ez iñor il; izorkeririk ez egin; ez ostu; guzuzeko autorik ez esan; aita-amai lotsa erakutsi egiozu; ta urkoa zeure burua bezin maite egizu. Gazteak diñotsa: Gustiok gaztetatik bete dodaz; zer gabe naz oraindior? Josu'k dirautso: Ona oso izan gura ba-dozu, zoaz, dozuzanak saldu ta txiroai emon egiezuz; ta altxoña zeruan daukakezu: ta zatoz; zafai kidaz Itzok entzunda, gazteak alde egin eban, arpegi-itun; ogasun askoren jaubea zan-eta. Orduan Josu'k bere ikasleai esan eutsien: Ziñez diñotzuet: aberatsa nekez sartuko da zeru-jaureñan. Ona: gamelua ofatzuloan sartzea, ezezago da, aberatsa zeru-jaureñan baño. «Mat., XIX, 16-24.

Itzok Jesukristok berberak esanak doguz. Eta aberatsen aurka, au da, biotza ogasunetan ipiñita daukiennen aurka, garazki-ro itz-dagi. Eleizan ukar txikia itxi eban emakumea, oster, goralgafi dala diñosku. Eta ez ukar edo limosna andia itxi ebalako, —txiroa zan eta askorik ezin eban — gogo onez emon ebalako baño. Josu'k eztau, ba, begiratzen egiten doguna, zelan egiten dogun beste.

Aberastasan-miñez dabilzanak zirikaldir, sare ta ifits oker eta kaltegarri askotan jausten dira. Gaitz gustien efoa zidar-gosea da, diño Paul deunak. Onoimen gustien efo ta sustefa, oster, txirotasuna. Ogasunak gauza askotarako kaltegarri yakuz. Batez be, donekuntza-bideari ekiteko, ogasunak at bota beare.

an gagoz. Gure biotza, soin ganekoa gakotik lez, ogasunetatik dingilizka dagoanean, ezin da jagi, ezin dau gorantz egazik egin. Igarilariak, ibaya uger batetik bestera igarotzekoan, soñekoak eranzten ditu; nafu-gorri nasayago igari dagi-ta. Bidaztia be, bi-de-zofoa itxi ezkerro, ariñago dabil. Beraz, aberats bizi ba-zara be, ainbarik lez bizi zaite, ezpego zure biotza eurai itsatsia.

Eta zer da biotzez tziro diranai, Kisto'k agintzen dautsiena? Zeru-jaurefia, efeñua. Gogoz txiro (pobre) dana zeruaren jaube da. Ta Kisto'ren itzok artez biñesan dagikez: Aitak daukan oro, neurea be ba-dot. Biztaldi onetan gogoz txiro diranak, ofexek dira zeruan aberatsen.

Lufeko ogasunak igazkoñak dira, itzala iduri, igesean doaz. Zerukoak, aldiz, iraunkoñak doguz, beti-beti iraungo dabenak. Eta angoak emengoen aldean edefak dira, eun bidar obeak; ez-taukie lur ontakoakaz zer ikusirik be. Eurok eskuratzeko, ez ete dogu ezertxu be egingo?

Ez-eukian bizi dana, gogoz txiro bedi; aberatsak, ostera, gogoz txiro ta ez-eukientzako esku-zabal izan bitez. Bestela, Jaungoikoaren esku asafetua gain dabe.

J.



Idazti bañiak: *Gexoen Elexakoak.* - Ugutza ta Ezkontza. Le-kuona'tar Imanol eta Oar-Arteta'tar Jose-ba Andoni jaupariak euskeraz ipiñita argi-taratu dau «JAUNGOIKO-ZALE»k. Lotsagañi izan da euskeldunoi jazoten izan yakuna. Gure eña eñirik kristauena dala, ta euskera baño eztakien eñietan oiturak garbiago ta kristautasuna zintzoago irauten dabela ao betean esaten izan dogula, euskeldunei ordurik lañenean, eriotzako orduan laguntzeko eleiz-idazti egokirik ez geunkan. Eta utsune au betetera dator idazti egoki au. Euskera eñazean idatzita dago. Beañen izaten diran onespenak be ba'dau-kaz; eta gaxo askok eskatzen Karmen'go Amaren eskapularioaren onespena be ba'lekar obeto izango litzakela deritxat. «Jaungoiko -Zale»n saltzen dira.



ZORIONAK

—oOo—

II. Otzanen zori ona, luñaren yaube egingo dira-ta



EGE zafetik bañira, alde andia da kazu. Lege zar garayan oñazta gi ta ostots edo trumoi artetik i egian Jaunak. Lege bañian Kisto lau-lau ta maitati dirakas. Mene -bizkafeko zelayan jafita dago entzule-aldra galanta, begi zofo

eta belafi-erne, adiketari dabelarik. Kisto ori bere Bañi onare azia ereiten asi yaken, ta lenen lagunabafari eskintzen dautsona zori ona. Otzanen zori ona, diño, luñaren jaube egingo dira-ta Mat., V, 4. Otzanak doguz oraingoan zorioneko. Eta zer da otzantasuna? Bear eztala asafatu ta adimena artegatzen dautsun lera txafa ezi ta neufira dakafan onoimena; onitxi deritxogun otzantasuna, (erdel-sungadun itzez, mantsotasuna). Onoimen onen euskai edo efo bi ditu: apaltasuna ta sendotasuna.

Norbere buruaren maitakeri lafegiz dozu geyenetan asafe -lera biztu daroana: inoren irañak ixilik eroatea zail eta aldatz- gora egiten yako afoari; ezek txarto urten ba-dautso be, zoratu egin yakola dirudi. ezta bere buru-jaube. Apala, oster, ez, eztozu asafe bera, ezta sumintzen edozegaitik: bere efuen gomuta, laño are antzo, darabil gogotan, eta irañik ainbat gain ba-letorkioz be. elitzake artegatuko. Bestetik, sendotasuna be nai-ta -nayezkoa dogu; onoimen onek uts-emon ezker, gatxa da asafea bezatu ta itotea.

Era bi darabiltza otzantasunak asafea ezi ta neufira ekarteko: lenengoz zio barik asafatzen ez dausku izten; ta gero, bear danean asafatu afen, asafe ofi neufiz jarten daki.

Asafea deritsogun lera ori gizon gustiok daukagu, eta berez ezta lera galgafia be, gogo-lerak izatez txafak eztira ta; baña gogo-lera edo griñok neufiz erabiltean datza irabazi guztia. Baltzuk menduz dira besteak baño asafe-kořagoak: ezereza lar dabe irakiten asteko.


Ořaitiño, lera ori ezi daike, ta oreik bezau ta neufira ekaři daroe, areik ofen bost ardurara dabe; eta, ikusizu, oneik otzanak dira, euren buruen jaube; areik, bařiz, sulezako (inpernuko) asafe biziak dirudie, eztira, euren jaube, asafeak darabiltza, axe zakafan besoetan udazkeneko orbel-ondaren tayuan. Irain itzen bat entzun ordukoxe, ondo gustia naztuten yakie, eta kafatza beti latza, ta asafea bekain baltza, diño esaera zafak.

Asafaldietan, erensugea minpean ba-leukie lez, esatekoak diñoez; aotik ustu daroe euren bafu atsi nastua. Saři, euren zoritxar gustien efudun Jauna ba litzean, bere kaltez aņienka diardue. Kistok, ostera, eztautsie onei, asafekořoi zorionik eskiņi, irain eta zoritxafak ustetsu ta eroapenez jasanik otzanak diranai baño; *otzanen zori ona!* diño; *asafekořen zori ona!* ostera, egundo be ezaban esan.

Eta zer eskeintzen dan Jaunak mendiko itzaldian? Lur osoa; otzanak luřaren jaube egingo dirala, dirausku. Zelan baña luřaren jaube egingo? Norbere biotz-leren nagusi izan eta enparauen biotzak irabaziaz. Otzana lenen bere biotz eta gogoaren jaube da; bere griņak, menpean daukazalako, adimen-argirik ez dauzsie ilunduten-eta. Bigafenez, iņoren iraņak artu ařen, ezta asafatzen, iraņai itz eztitsuakaz erantzun eta poztu baño. Eta, ba-dakizue, ilintiari sua kendu ezkerro amatau egin doa; beste ainbat jazoten yatzu otzanagaz be; asafe danari ta berba irain: tsuak esaka ausitan jardun gura dabena otzantasunaz eta maitaki erantzuten dautso, ta oro azpikoz gora itzuli bear eban ekaitz aizetsua zirudian gizon ori ibitu egiten da. Ofela danen biotzak irabazi daroaz, eta egitan luřaren jaube egiņik dakusgu. Mois andiak efikoen biotzak eskuan ba-eukozan be, bere egi tsari ařigafiakaitik baño geyago otzana zalako izan zan.

Jaraitzeko

JAGOBA, K. O.





ZORIONAK

II. Otzanen zoriona, luřaren jaube egingo dira-ta.

(Jaraipena)

Baña, batez be, Jaunak gizon otzanai abintzen dau-tsona ezin-ilkořen luřa, beli-betiko bizi diranen aberia, zerua da. Dabit eregearen eresietan Kanan'go luřalde eskintzen yakie; gaiztoak eztabe an alderik izango; otzanak, bariz, jarauntsizat artuko dabe, luřalde ořen jaube egingo dira, ta lur ořek zerua dikur. Bai; Josu-Kistok diño-kunez otzanak zoriontsu dira; baña ba-dogu agindua be otzanak izateko. Beste toki baten samurkiro dirau: «Nigandik ikasi egizue, otzan eta apal nazan ezkerro; eta zeuen biotzentzat bake ta gentza osoa igaroko dozue». Mat., XI, 29. Beragandik ikasi gengikela diño, ta ba-dogu izan be zer ikasi, bere bizitza laburēan amaika ikasbide eder emona dogu-ta. Nekaldian iñondikoak egin eutsoezan bere arerio ankerak, Josu bariz iltera daroyen bil-dots bat bezin ixil, mutu ta otzan egoan; gurutzan dingi-liz jari eben, baña ez eban etsai makur arein aurka txi-tik be atara; egařia odolez ito gura eben otso goseti asko inguratu yakoan, baña Josu'k ez eulsen begi-zizta oke-řik bota. Ba-dogu beraz zer ikasi bere biotz otzanagan-dik.

Ondiño deutasun-mendirano igon gura dabennai ge-yago diñolse. «Gaiztagiñari gogor ez egin; eta iñok esku-mako matralan jotēn ba-zaitu, bestea be eskiñiozu. Ta soñekoa zuri kentzearen, zugaz auzitan liskartu nai da-benari soingañekoa be emoyozu. Ta iñok mila urats

(pausu) ibilerazten ba-dautzuz, bi mila egizuz aregaz batera». Mat., V, 39 41. Onetan agindurik ez, eztausku ipinten; deuntasun-ituritik edan gura ezkerro, zer egin bear dogun bai ba-diñosku. Oztantasan gorengo mala onetaraño igoten leya gaitezán, eta Kisto'k, otzanen eredu bikañenak, goi-zelai jator-ugari-eztitsuen jaube egingo gaitu.

III Negar dagienen zori ona, poztuko dira=ta.

Ene! betilun ikusten dogu sañi gizakumea; dirudie-nez, laño dauko biotza, ta *itun*, triste, dala diñogu, ao betean. Arpegia dozu arimako lera ta griñen ispilu. Barua asare-sumin daukozu? Naita zuk gura ez, arpegi-azalean ezagun. Biotza poz-irule ete? Ao-atarian oren ezau-gari be.

Ituntasuna! Geure eskuan geunken ezer onik galdu-edo ba-dogu, itunak artzen gaitu, ta, noizik-bein, negar-anpuluak dirdira, begi-ertzean dindil. Atsegin yakun zerbaiten jaube gareanean, pozak garabiltza; kezkek biotza oñazetzen badausku, osterá, *itunak*

Barua nasai, poz-eztitan daukazu? Igarí barik dator-kizu bareá ezpanera; uste etzendun lorontzi biurtzen yatzu aoa. Orain ba; beste ainbeste jazoten da zugaz itun zagozanean be. Zuk ezeri oartu barik, begira doakizu negara. Eta izan be ona da, naigabeak gaukazanean, negarari emotea. Zanak odol lagegiz astuntzen yakuz batzutan eta ondoren gexotu; ta gero osatuko ba-gara, soin-txatalen bat ebagi bear. Biotzak be oñazez astundanean, nun-edo-nundik atsedén artu bear, eta soin-txatalik uratzera barik be, berenez ustuten da, begiak ditula txirist-bide; bai, begiak ustutzen dau biotz-intziria. Iñoz biotza laño ba-daukazu, negarari zagoz. Iñor il edo zori txaren bat izan dozu? Ezeren poz-bide barik negar-zotinka zakustaz; orela negaretan urtu daroazu baru samina; biotzeko gaitza begian dager.

JAGOBA, K. O.

(Jaraitzen dau.)



← ZORIONAK →

III.—Negar dagienen zori ona, poztuko dira-ta

(Jaraipena)




AÑA gatozan arira. Jesus laztanak, atsekabeak estutu ta negar egi-ten dozun ori be gogotan euki zenduzan. Mendiko itzaldian irugañenez dirau: Negar dagienen zori ona, poztuko dira-ta. Mat., V, 5. Mundua ez, egia, eztago oretan; bestelako usteak daukoz kasketean. Jaunak diñoana bere eretxiaz bat ez dator. Aberats eta atsegiñean eroso bizi diranak dozuz, munduak alan uste beintzat, zori oneko; ezeukian bizi ta negar - zotinka dagozanak, ostera, lander eta txiro -txiro baño ez dozuz; munduaren ustez oneik eztabe pozik iñondik-iñora. Kistok, oraitño, bestera diño: Negar dagienen zori ona. Beraz oker dago ludia, bidezko eztan eritxiari eratzita dabil, guzuñari esku emonda.

Antxiña, Itun Zañean be, negar egienak, goretsiak ziran. Zer dala-ta? Israel, Jaungoikoaren eñi autua, aren menpeko izateaz aspertu zalako uñean, sañi bide txañetik eбилan. Au ikusiaz, israeldar batzuk, gizon zintzoak orduan be aurkitzen ziran-eta, zurdatzez soña ta autsez burua, Jaunari otoika negar egien. Eta eñiko pekatuakaitik negar egin eben areitxek, iletañi zintzo areitxek dira Jaunak, igarlearen aboz, goi-gora jaso ebazanak. Gañera, asaba arein biotza bakar aurkitzen zan,

kutunen albotik erbestetua letxe; eta zerua opa eben bizi-biziro.

Onetxek dozuz, Kistoren esanez, be, zori oneko. Norbere ta iñoren oben edo pekatuakatik negar egizu, ba; zoritxaña inguruan-eta bizi añen, eroapenez jasan; ezta lur au gure egizko aberia, zerua, atsegin - argiak zirt-zart dagiana, baño. A lortuteko aragi ta lerakaz bular-tinko buñukatu beña daukazu. Negar bai negar, lekaro auts uts onetan erbestean zagoz-ta. Negar egizu lenen munduko pekatuakatik; negar bigañenez, zotinka, Babilon'go ibai ertzean jañita negar egin ebenen erara, atzeñian zagozan arte beintzat. Sarats-adañean eresgañuak esegi ta emon negañari. Zelan abestu Jainko-eresik iñoren eñian? Eres., CXXXVI, 1-4.

Baña negañez urtu añen ez bildur izan, negañari saria dañaikio-ta. Negar dagienen zori ona, poztuko dira-ta, diño Josuk. Bai, negartiak be izango dabez pozaldi galantak. Isai igarle andiak diñoanez, Jaunak berak sarituko ditu; auts-ordez aintz-estaia jañiko dautse buruan, negar-ordez poz-orioz igortziko ditu, itun-gogo-ordez goral-buruntza. Is., LXI, 3. Bizitzea labur dozu; aize-balak aidean daroian laño-moltzoa durudi. Iñoz izan dozu gabaz amesik? Orixe, ames utsa baño ezta bizitz au. Munduko zoritxañarenak laster egingo dau; ta ondoren or ikusiko dozu eñaiñuka ezer baño dizditsuago zorion-izaña; zoritxañak bost egun dirau, zorion-aldia bañiz betiraunekoa dozu. Emen, erbestean, atsekabe-itxasoz artega zabiltz, irakurle? Ez bildur izan. Laster uratuko atsegin-argia. Bein zerura ezkerro, antxe dauka-kezu zorion utsa, atsegin osoa, gal-eziña. Ez, an etzara gose izango, ez egañi; etzaitu eguzkiak edo iñongo sargoriak nekatuko; an, aulki erdian dagon Bildotsak lañera ta bizitzako ur-itufietara eroango zaitu; zure begietatik edozein malko - yario Jaungoikoak txukatuko dautzu. Yon'i Agea., VII, 16-17.



ZORIONAK

IV. Zuzen-gose-ta egañi diranen zori ona, ase izango dira-ta.

Bide txarretik alde, diñotso gizonari Igarle andiak, eta artu, egizu onerakoa. Au da: goñotau egizu Jaunaren legea austen zaroazana: bete egizu bestera bere lege gurena.

Jesukristo'k mendiko itzaldian ailatutako zorionak zortzi arlotan banatu ebazan Matai deunak. Lenengo iruretan onela irakurten dogu: Alde egizu aberastasunetatik, ogasun-zalekeriok erantzi egizuz; alde egizu asarretik; alde egizu poztasun mundutarretatik, negar dagienak bakarrik baitozuz egiazko zoriontsu. Laugarrenean, oster, ona zer diñoskun: Zuzen-goxe ta egañi diranen zori ona, ase izango dira-ta. Izketa baria dirudi: Uñeratu zaitze bide onera! Eta biotza, zuzen-gose danean, berez yoaku bide onera. Gogoak zer-edo-zer biai opa dabe-nean, idor aurkitzen da, sukaretan; egañi biziak oñazetzen dau.

Izaki oso dakusgu zorion-bila; baña batez be gizona. Danok opa zorion-argi-kiñua. Eta egañi au, ase-eziña dirudian zorion-egañi au, berezkoa yaku. Ez, ezin daikegu, edozetara yota be, zorion-lera geugandik aldendu. Zoro antzera darabil gizona egañi min onek. Askotan, egia, edonon idoro nai zorion-ura, ta idoi naskagarietara doia itsumustuan; iruzur dagilse ta zorion orde zoritxara daurki. Alan beti zorionaren atzean. Bidebakokeri andienetan, pekaturik astunenetan jausi ta gogoñunpe baltzenetan galtzen dala be, zeren bila? Zorion-bila! Brrua, ondatuta, amillegi baruan ikusi añen be, zoriona opa.

Augustin urtenak diño: Onak zoriontsu izan gura-ta

dira on, eta gaiztoak be bardin, zoriontsu izan gura ta dira gaizto. Izan be zekena zer dala-ta dago ogasun-gosea ta aroa izen-andi egañitan? Zergaitik aragi-zalea gorputz-atsegiñetan kiskal-beañez? Ara: onei iruroi, zorionik ezpiñena aberastasunean, izen andian eta soin-atsegiñean dagoala deritxe. Bai, gaiztuok be zoriona opa dabe, ta zalez opa be; zorionera daroian bide-kurutzan oraitiño uts dagiz; eskumatik beañean ezkeretik artu. Ortik ez! ortik ez! oia abots batek; diru-bidetik, ereñotz-bidetik, atsegin-bidetik txarto zoiaze. Eta egi biribila; bide oren amaikeran, basamortua idoroko dogu; ondartzetxe soila, muritza, igora, eguzkiak erez. Eta, zoritxarez, bibe ortatik dabiltz gizonik geienak, egañi bizia egundo ito eziñik. Erukañiak!

Gizonak, txarto zabiltze. Ona Jaunak: Zuzen-gose ta egañi diranen zori ona, ase izango dira-ta. (Mat. V, 6). Zuzentasunaren gose ta egañi zaitezte, au da, Ja naren legez maite egizue, ta zoriona daurkikezue. Bere aginpean, bere lege-barutian bizi zaitezte. Jainko-legea da gizonaren neuria, ta neuria onen baruan dabilena bakañik zorion-jaube. Zuzen-gose zara? Or zegaitik: Jaungoikoaren legepean bizi zarealako. Edo obeto: Jaunaren legea zearo betetan dozu? Zuzen-gose zara? Or zegaitik: Jaungoikoaren legepean bizi zarealako. Edo obeto: Jaunaren legea zearo betetan dozu? Zuzen-gose ta egañi zara. Jaunaren bear gara, kristauak; Bere barik zer? Alperikako izakiak.

Zuzen egañi izatea Jaungoikoaren gogoz egitean datza. Eta Jesu-Kisto'k bai egin aldi oso Jaunaren gogoa! Bialdu nabarenaren gogoa yat yanari, inotsen ikasleai; bera bete-beaña dot. Eta alantxe zan, ixan be. Estalpetxoan, Nazare'ten, Bari Ona aldarikatzen ebilela, Getsemani'n, gurutzean, beti ta edonun egin eban, ezetan be utsik emon barik, Aite altsuaren gogoa. Eta, bakañik; dana Jaungoikoak nai bestean bete ondoren; diño: Consummatum est! Ona irakurle: Jesu-Kisto dagu zuzen-eredurik bikain eta gorengoena; biziltz osoan zuzen-bidez bai-zan ibili

Zoriontsua, Kisto iduri, beti zuzen-bidetik dabilan biotza be, Zorionekuak, otsez diran Dabit eregeak eresietan, bizi-bidea kutsuge dagienak. Eta nortzuk dira oneik? Jaunaren legepean dabiltzanak. Or zegaitik zuzengose ta egañien zori ona; argi-utsa dan Goiko Jaunaren aurretik urintzake bai-dira bizi, Zain ontako gizakumeak ur ibilien alboan sartutako zugatzak dirudie; aizeburunbak eragin añen, oririk ez yake yausiko, ta aruari aroan ale umoak ekañiko dabez.

Ba-leiteke, ta bein baño sañiago yaso oi da, zuzentasunaz besarkatzea, aldatz-gora egitea. Kisto'ri be gañatza izan yakon beztunez nastauta eskiñi eutsoen edaria. Baña edontzi aretatik edanda Goiko Aitagaz bat etofelako, «Egañi naz», iñoan; ta beztun-egañi izan be. Zer dala-ta? Jaunaren eskutik datorkigun oso ezta baizen gozo yakulako. Oñaze ta samin-lañoz begi-biotzak lauzotuta bein edo bein aurkitzen ba-zarie, ene irakurleok, gogotik oin: Ezpei, Jauna, nire gogoa egin, zeurea baño; ta beztune ezti biurtuko yatzue. Egañi naz, zuzen-egañi! esaka, zoro antzera, asiko zarie.

Gauza guztietan Jaunaren gogoa bñla-guraz ba-zabil-tze, zuen biozkadak berez itzulik dira, eki-liliak eguzkera lez, Jaunarengana. Eta Jainko-gogo-bete-gura ori zeruan geitu egingo yatzue. An bañiz biotz-lera biziak osoro beteko dira. Ta or zuen zuzen-egañi ta gose ori be ase egiñik. Adimen eta gogoz Jaunagaz batuko zarie; ta bein ara ezkerro, Jaunak aditu ta gure dabena baño eztozue aditu ta gura izango. Sira ikatzari atz sarkoñez itsaten yako. Orobat gu Jaunari be. Oi zeruko asetasuna!

Zuzen-egañi zaiteze, irakurleok. Gudiko gauzen goraberakaren gabiltzan tente. Ots Terese Amagaz: Ezpegiz ezek artega; Jauna guretzat naiko.

JAGOBA, K. O.

ORMA'KO EGUTEGIA: «La Obra Maxima»k argitaratu dau 1936'gañen urterako Karmen'go Amaren eta Teresetxu deunaren Mixio-egutegi egokia (erderazkoa). Bakotxa 0,40'n saltzen da; kartoiaz 1,00'an.